



**Hezkuntza publikoan
lan baldintzak hobetu.**
Hemen eta orain erabakita.

Prentsa oharra:
Otsailak 19ko greba balorazioa

Hezkuntza Publikoko sukalde eta garbiketari LAB, ELA eta CCOO sindikatuek deitutako grebak hirugarren egunez %70etik gorako jarraipena izan du

Hezkuntza Saileko Sukalde eta Garbiketako 1.000 langile izan dira gaur, otsailaren 19a, grebara deituak. Urtarrilaren 30eko eta 31ko grebetan bezalaxe **grebak jarraipen oso zabala izan du, %70etik gorakoa.**

Gaur Bilboko, Donostiako eta Gasteizko hezkuntza ordezkaritzetan egindako elkarretaratzeetan ehunka sukaldari eta garbitzaile bildu gara.

Urtarrileko greben ostean negoziazio mahaiak deitu ditu Hezkuntza Sailak. Bilera hauetan, grebek behartuta **zenbait eduki mahai gainean jartzen hasi da**, funtzioen inguruan esaterako eta kategorien egokitzapenari buruz hitz egiten hasi da. Halere, **grebetako aldarrikapenei erantzuten dieten proposamenak jorrazetik eta ekartzetik urrun dago.**

Grebek eta mobilizazioek izandako babesak argi erakusten du langileek grebetan jarraitzeko indarra daukatela edukiak lortu arte. Horrela, **bihar ere greba eguna da kolektibo honentzat.** Lakuan egingo dute mobilizazioa goizeko 11.30etan. Lakua inguratuko dute sukadari eta garbitzaileek.

Hitzarmena berritzeko grebetako **aldarrikapen nagusiak** hauek dira: **lan zamak** arintzeko bazkaltiar eta garbiketa ratioak hobetzea eta lanaldiak murriztea; **gazteberritze planak** adostea; galdutako **eros-ahalmena berreskuratzea**; **funtzioak** definitzea eta **kategoriak** egokitzea; **enplegua egonkortzea** eta pribatizazio zein fusio edo itxieren bidez lanpostu suntsiketarako eragozteko neurriak hartzea, ordezkoen araudia negoziatu eta adostea, lizentziak eta baimenak hobetzea eta **lan osasun, berdintasun eta euskara planak garatzea.**


Kolektibo hau **feminizatuena** den Hezkuntza saileko esparrua da eta **lan baldintza prekarioenak** dituen, baita pribatizazio prozesu handiena bizi duena ere.

Azkenik, gogoratu behar dugu Eusko Jaurlaritzak **gehiegizko zerbitzu minimoen** bitartez zein hauen aplikazioarako irizpide neurrigabeak ezarriz, kolektibo honen **greba eskubidea baldintzatu** nahi izan duela.

Hau horrela izan arren, greba egiteko aukera izan duten langileen artean, **grebak %70etik gorako jarraipena izan du.** Besteak beste, aipatzekoak dira, **gutxieneko zerbitzuak kenduta langileen %100ak greba** egin duen ondorengo eskoletako sukaldeak:

- **Gipuzkoan:** Beasain, Hernani, Zarautz, Azkoitia, Lezo, Ikasbide edo Urretxu.
- **Bizkaian:** CEP Mendia Balmasedan, CEP Kontxa edo CEP Alonsotegi.
- **Arabian:** Alegria/Dulantzi, Valdegobia, Gamarra edo Mendiko eskola.

Garbiketako langileen kasuan ere **grebaren jarraipena oso zabala** izan da. Erabatekoa, besteak beste, Lasarte eta Ordizin Gipuzkoan, Burdinibarra eta Trapagaran Bizkaian edo Gorbeialde, Eio eta Eraikin Araban.



Mejora de las condiciones laborales en la educación pública.

Decididas aquí y ahora.

COCINA/LIMPIEZA

Nota de prensa:

Valoración de la huelga del 19 de febrero

La huelga convocada por los sindicatos LAB, ELA y CCOO en el colectivo de cocina y limpieza de la Educación Pública registra por tercer día consecutivo un seguimiento superior al 70%

Hoy, 19 de febrero, 1.000 trabajadores y trabajadoras de Cocina y Limpieza del Departamento de Educación han sido llamados a la huelga. Al igual que en las huelgas de los días 30 y 31 de enero, **la huelga ha tenido un seguimiento muy amplio, superior al 70%.**

En las concentraciones celebradas hoy en las delegaciones de educación de Bilbao, Donostia y Vitoria-Gasteiz nos hemos reunido cientos de personal del colectivo de cocina y limpieza.

El departamento de educación ha convocado mesas de negociación tras las huelgas de enero. Obligado por el amplio seguimiento de las huelgas, **ha empezado a poner sobre la mesa algunos contenidos**, como las funciones, y se ha empezado a hablar de la adecuación de las categorías. Sin embargo, **está lejos de abordar y aportar propuestas que respondan a las reivindicaciones de las huelgas.**

El apoyo a la huelga y a las movilizaciones demuestra que los trabajadores y trabajadoras tienen fuerza para permanecer en las huelgas hasta conseguir contenidos. **Así, mañana también es jornada de huelga para este colectivo.** La movilización tendrá lugar en Lakua a las 11.30 de la mañana. El personal de cocina y limpieza rodeará Lakua.

Las **principales reivindicaciones** de las huelgas para renovar el convenio son: mejorar los ratios de comensales y limpieza para **aliviar las cargas de trabajo** y reducir las jornadas laborales; acordar **planes de rejuvenecimiento** de la plantilla; **recuperar el poder adquisitivo** perdido; definir **funciones** y adecuar **categorías; estabilizar el empleo** y adoptar medidas para evitar destrucciones de puestos de trabajo mediante privatizaciones y fusiones o cierres, negociar y acordar la normativa de sustituciones, mejorar las licencias y permisos y desarrollar **planes de salud laboral, igualdad y euskera.**

Este **colectivo es el más feminizado** y con las **condiciones laborales más precarias** en el ámbito del departamento de Educación y que vive el mayor proceso de privatización.

Por último, debemos recordar que el Gobierno Vasco ha querido **condicionar el derecho de huelga** de este colectivo a través de **servicios mínimos excesivos** y estableciendo criterios desproporcionados para su aplicación.

A pesar de ello, entre el personal que ha podido hacer huelga, la huelga ha tenido un **seguimiento superior al 70%**. Entre otras, cabe destacar las cocinas de las siguientes escuelas en las que el **100% de la plantilla ha hecho huelga, exceptuando los servicios mínimos:**

- **En Gipuzkoa:** Beasain, Hernani, Zarautz, Azkoitia, Lezo, Ikasbide o Urretxu.
- **En Bizkaia:** CEP Mendiá Balmasedan, CEP Kontxa o CEP Alonsotegi.
- **En Araba:** Alegria/Dulantzi, Valdegobia, Gamarra o Mendiko eskola.

En el caso del **personal de limpieza** el **seguimiento de la huelga también ha sido muy amplio.** Total, entre otros en Lasarte y Ordizia en Gipuzkoa, Burdinibarra y Trapagaran en Bizkaia o Gorbeialde, Eio y Eraikin en Araba.